

## EUROPAKO INFORMAZIO NORMALIZATUA

### 1. Mailegu-emailearen nortasuna eta xehetasunak

Mailegu-emailea:	Triodos Bank NV, Sucursal en España.
Helbidea:	Calle José Echegaray, 5, 28232 Las Rozas, Madrid.
Telefonoa:	902 360940 / 91 640 54 44
Webgunea:	www.triodos.es

### 2. Kreditu produktuaren ezaugarri nagusien deskribapena

Kreditu mota	Triodos Kreditu Txartela. Ordainketa tresna bat, erabilera eta aplikazio moduaren gorabeheran hainbat modalitate izan ditzakeena.
--------------	---

Kredituaren zenbatekoa, guztira: Hau da, kreditu kontratu baten esparruan, kontsumitzailearen eskura jarritako kopuru guztien batura edo gehieneko zenbatekoa.	600 – 5.000 euro bitarte; hala ere, eskatzailearen ordainketa ahalmena ebaluatu eta gero zehaztuko da kreditu muga.
---	---

Kredituko dirua erabiltzea arautzen duten baldintzak: Hau da, kontsumitzaileak noiz eta nola lortuko duen dirua	Eskaera onartu eta gero, Triodos Bank NV, S.E. banketxeak kreditu linea bat irekiko du, Tarjeta de Crédito Triodos txartelari lotua. Linea horrek aukera hauek emango dizkio titularrari: <ul style="list-style-type: none"><li>• Tarjeta de Crédito Triodos onartzen duten estatuko edota atzerriko establezimenduetan ondasunak edo zerbitzuak erosi;</li><li>• banketxe honek horretarako bidea ematen duten akordioak eginak dituen kreditu erakundeen nahiz kutxazain automatikoen bidez eskudirua ateratzea;</li><li>• titularraren eta onuradunen eskura dauden edo etorkizunean jartzen diren zerbitzuak gozatu.</li></ul>
--	--

Kreditu kontratuaren iraunaldia	Mugagabea. Hala ere, alderdietako edozeinek kontratua suntsiarazi ahalko du edonoiz, beste alderdiari jakinarazita. Suntsiarazpena gauzatzen den eguna baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio, Triodos Bank NV, S.E. banketxeak suntsiarazten badu; eta 24 ordu, kontsumitzaileak suntsiarazten badu. Kontratua bukatzean, bezeroak egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzuli beharko du, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera.
---------------------------------	---

Epekako ordainketak egiteko epeak eta, hala egokituz gero, ordena	Bezeroak aukera ditzakeen ordainbideak: <ul style="list-style-type: none"><li>• a) Eskudirutan ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zenbateko osoa ordaintzen du hitzartutako zorduntze datan, interesik gabe.</li><li>• b) Geroratuta ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zorraren ordainketa osoa edo zati bat geroratzen du, eta hileroko amortizatzen du, ondorengo hauen artean aukeratu duen modalitateari jarraituz, eta kontratazio inprimakian finkatutako hileroko gutxieneko zenbatekoekin:<ol style="list-style-type: none"><li>1.- erabilitako saldoaren ehuneko gisa, hil horretan sortutako interes eta komisioak gehituta.</li><li>2.- hileko kopuru finko gisa, hil horretan sortutako interes eta komisioak sartuta.</li></ol>Bi kasuetan, hileko kuota ezingo da izan 60 eurotik beherakoa, ez eta 600 eurotik gorakoa ere. Berariaz bestela adierazi ezean, ulertuko da hasiera batean aukeratutako ordainketa modalitatea esku-dirutan ordaintzeko sistema dela. Hilero ordainduko da.</li></ul>
---	--

Ordaindu beharko duzun zenbatekoa, guztira. Hau da, mailegatutako kapitalaren zenbatekoa, gehi interesak eta zure kredituari lotutako gastuak.	Zenbateko hori honela kalkulatu da: erabilitako diru kopuruak, gehi hitzartutako ordainketa aukeraren arabera dagozkion interesak eta komisioak.
--	--

Eskatutako bermeak  
Kreditu kontratuari dagokionez  
eskaintzen duzun bermearen  
deskribapena.

Diru itzulketek ez dakarte kapita- la berehala amortizatzea      Egindako eragiketengatik dagoen zorra kontsumitzaileak amortizatzen duen neurrian, saldo erabilgarria berrezartzen da, eta kontsumitzaileak berriz dirua ateratzeko aukera du.

### 3. Kredituaren kostuak

Kreditu kontratuari aplikatzen zaion zor tasa edo, hala egokituz gero, zor tasak.      Interes tasa nominala, ordainketa geroratuagatik: % 12

Urteko tasa baliokidea (UTB)  
UTB da kredituaren kostu osoa, kredituaren zenbateko osoaren urteko ehuneko baten bidez adierazia.  
UTBak eskaintzak konparatzeko balio du.

UTB kalkulatu da dokumentu honetan jasotako baldintzetarako (interes tasa, epea eta gainerako baldintzak), 16/2011 Legean (2011ko ekainaren 24koa, kontsumorako kredituei buruzkoa) ezarritako arau eta formulei jarraituz; eta, aplikatzekoa den hartan, Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularriari jarraituz. UTB kalkulatzeko, hipotesi hauek erabili dira: i) titularrak berehala erabili duela baldintza partikularretan ezarritako kreditu muga osoa; ii) kreditua hileko 12 kuota berdinetan itzuliko dela, erabili den datatik hasita, eta azken ordainketarekin kapitala, interesak eta komisioak kitatzen direla; iii) aldi osoan hitzartutako interes tasa mantentzen dela, bai eta baldintza partikularretan ezarritako gainerako baldintzak ere; iv) denboraren zenbaketa oinarria urtebete (365 egun) dela; v) eta kreditua indarrean mantentzen dela hitzartutako aldian, eta alderdiek betetzen dituztela kontratuan ezarritako betebeharrak.

Adibidez: Hilaren lehenean ordainketa geroratuztat 1.200 euroren kopurua erabiliz gero, 12 hilabetera ordaintzekoa, baldin epe horretan beste diru erabilerarik egiten ez bada, ITN % 12 izanik eta jaulkitze komisioa 34 euro izanik. Hileko kopurua: 106,62 (azken zatikako 106,60) euro. Ordainketa geroratuaren interesak: 79,42 euro. Kredituaren kostua, guztira: 113,42 euro. Zorraren zenbatekoa, guztira: 1.313,42 euro. UTB: 18,96%.

Nahitaezkoa al da, kreditua bera lortzeko edo eskaintako baldintzetarako, kreditua bermatuko duen aseguru poliza bat hartzea edo beste zerbitzu osagarriren bat?

Ez

Erlazionatutako kostuak  
Kreditu txartela erabiltzearen kostuen zenbatekoa

- Kutxazainean eskudirua ateratzearen komisioa:
  - Triodos kutxazaina: % 2,00, gutxienez 3,00 €
  - Estatuko sareko kutxazaina: gehienez ere, kutxazainaren jabe den erakundeak ezarritako komisioa gehi % 2,00. Gutxienez 3,00 €.
- Estatuko beste kreditu erakunde batzuen Espainiako edo atzerriko bulego batean dirua ateratzearen komisioa: % 4,00, gutxienez 3,00 €
- Bankuan norberaren kontura dirua intsuldatzearen komisioa: % 2,00, gutxienez 2,00 €
- Jaulkitzearen komisioa: 34,00 €
- Mantentzearen komisioa: 34,00 €
- Txartelaren kopia egitearen komisioa: 8,00 €

Kreditu kontratuarekin erlazionatutako aipatu gastuak zein baldintzatan alda daitezkeen

Aldaketak titularrari modu indibidualizatuan jakinaraziko zaizkio, paperean edo beste euskarri iraunkor batean, aldatetako aplikatu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago. Aldaketak titularrari onurarik badakarkiote, berehala aplikatu ahalko dira. Gainera, titularrari egiten zaion lehen komunikazioan jakinaraziko zaio. Titularrak baldintzak onartzen dituela joko da, nolaz eta aurkakoa jakinarazten ez dion bankuari, aldatetako indarrean sartzeko proposatutako data baino lehen. Kitatuz gero, ez dira aplikatutako baldintza berriak. Horrelakoetan, kontratu hau suntsituko da berehala eta titularrari kosturik eragin gabe. Hala ere, titularraren betebeharra izango da egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzultzea, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera.

Kostuak, ordainketarik berandutuz gero. Ordainketa bat ez egiteak ondorio larriak ekartzen ahal dizkizu (adibidez, nahitaez saldu beharra), eta kreditua lortzea zailtzen ahal dizu.

% 12ko berandutze interesa ordaindu beharko duzu, zteratutako ordainketengatik, bai eta ez ordaintzea erreklamatzeko 30 euroko komisioa ere, behin bakarrik, zordun-posizio bakoitzarengatik, Triodos Bank NV, S.E. banketxeari zor zaizkion kopuruak berreskuratzea lortzeko egindako kudeaketengatik konpentsatzeko. Era berean, bere ordainketa betebeharrak betetzen ez baditu, horrek ekarri ahalko du, kontratuan ezarritako baldintzei jarraituz, ondare kaudimenaren eta kredituaren fitxategietan erregistratzea, kontratua aurrez deuseztatzea, eta zorra judizialki erreklamatzeko.

## 4. Beste alderdi juridiko garrantzitsu batzuk

Uko egiteko eskubidea	BAI Kreditu kontratuari uko egiteko eskubidea duzu, 14 egun naturaleko epean. Horretarako, banketxearen helbidera jakinarazpen idatzia bidali behar duzu.
Aldez aurretiko diru itzulketa	BAI Eskubidea duzu kreditu osoa edo zati bat aldez aurretik itzultzeko.
Datu base bat kontsultatzea	Mailegu-emaileak berehala eta kargurik gabe jakinarazi behar dizu datu base bateko kontsulta baten emaitza, baldin kreditu eskaera bat horrelako kontsulta batean oinarrituta ukatzen bada. Hori ez da aplikatzen baldin informazio hori zabaltzea legez edo Europar Batasuneko zuzenbideaz debekatuta badago, edota ordena publikoaren nahiz segurtasun publikoaren helburuen kontrakoa bada.
Kreditu kontratuaren proiektu baterako eskubidea	Eskatzen baduzu, eskubidea duzu kreditu kontratuaren proiektuaren kopia bat dohainik jasotzeko. Xedapen hau ez da aplikatuko baldin eskaeraren uanean mailegu-emailea ez badago zurekin kreditu kontratua egiteko prest.
Kontratu aurreko informazioak mailegu-emailea lotua daukan epea	Informazio hori baliozkoa izango da jaulki ondorengo hamalau (14) egun naturaletan.

## 5. Informazio gehigarria, finantza zerbitzuen urrutiko merkaturatzea eginez gero

### a) Mailegu-emaileari buruzkoa

Gainbegiratze agintaritzatza	Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalaren jarduna Espainiako Bankuak (C/ Alcalá, 48, 28014 Madrid) gainbegiratzen du likidezia, gardentasun eta interes orokorreko gaietan; eta Herbehereetako Banku Zentralak, Europar Batasuneko kreditu erakunde baten sukurtsala denez.
------------------------------	--

### b) Kreditu kontratuari buruzkoa

Uko egiteko eskubidea erabiltzea	Titularrak, uko egiteko bere eskubidea erabiltzeko, hau egin beharko du: a) Triodos Bank NV, S.E. banketxeari jakinarazi, dokumentu honetan adierazitako helbidera hartu-agiria duen gutun ziurtatua bidalita. Epea errespetatu dela joko da, eta ondorioz uko egiteak eragina izango du, baldin jakinarazpena hamalau (14) egun naturaleko aipatu epea bukatu baino lehenago bidali bada. b) Triodos Bank NV, S.E. banketxeari ordaindu bai kapitala, bai banketxeak dirua eskuragarri jarri zuen egunetik titularrak kapitala itzuli zuen egunera bitarteko epean erabilitako kapitalaren gainean metatutako interesa, berandutze desegokirik gabe, banketxeari uko egitearen jakinarazpena bidali eta hogeita hamar (30) egunera gehienez.
----------------------------------	---

Kreditu kontratuari dagokienez aplikagarri den legediari edota auzitegi eskumendunari buruzko klausula.	Espainiako legediak arautuko du kontratu hau. Kontratu honetatik eratorritako edozein erreklamazio judizialearako eskumena duen auzitegia kontsumitzailearen bizilekukoa da.
---	--

Hizkuntza araubidea	Kontratuko informazioa eta baldintzak gaztelaniaz emango dira. Eta, zure baimenarekin, kreditu kontratuaren iraunaldian zurekin hizkuntza horretan komunikatuko gara.
---------------------	---

### c) Errekurtsoari buruzkoa

Erreklamazio eta errekurtsoko prozedura estrajudizialen existentzia eta erabilera	Kontratuarekin erlazionatutako edozein gairi buruz alderdien artean desadostasunik izanez gero, kontratatzaileak eta titularrak, hala egokituz gero, erreklamazioak egin ahalko dizkiote Espainiako Bankuaren Merkatu Jokabidearen eta Erreklamazioen Saila (Servicio de Reclamaciones del Banco de España, C/ Alcalá, 48, 28014 Madrid). Saila horretara jo aurretik, justifikatu beharko duzu lehenago jo duzula Triodos Bank NV, S.E. banketxearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura. Arreta zerbitzu horretara jotzeko, hasieran adierazitako helbidera idatzi behar da, edo 902 360 940 nahiz 91 640 46 84 telefonotara deitu, edo reclamaciones@triodos.es helbide elektronikora idatzi.
---	--

# KONTRATUZ AURREKO INFORMAZIO GEHIGARRIA, ORDAINKETA ZERBITZUENA

Ondoren zehaztutako informazioak osatzen du kreditu txartelari buruzko Europako informazio normalizatua, Triodos Bank NV, S.E. bankeak emana, Ordainketa zerbitzuei aplikagarri zaizkien baldintza gardentasunari eta informazio betekizunei buruzko 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 agindua, eta Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra.

<b>Txartelaren erabilera</b>	Banku honek horretarako bidea ematen duten akordioak eginak dituen kreditu erakundeen nahiz kutxazain automatikoen bidez eskudirua ateratzeko, eta zerbitzu hau edo beste batzuk gozatzeko. Atxikitako establezimenduetan ondasunak erosi eta zerbitzuak erabiltzeko, titularrak hau egin behar du: i) txartela aurkeztu, eta establezimenduak egindako faktura sinatu edo PIN zenbakia tekleatu (egindako eragiketakarekin guztiz ados egotea dakar horrek); eta ii) dagokion eragiketa gauzatzearren txartela aurkeztean bere nortasuna egiaztatu. Triodos Bankek contactless teknologiazko txartelik jaulkiz gero, alderdiek onartzen dute haien titularraren sinadura autografoaren berdina izango dela, juridikoki, titularrak txartela hurbiltzea kutxazain automatikoetara, saltokiko terminaletara edo beste kobrantza tresna batzuetara, transakzioa egin dadin. Banca Telefónica edo Banca Internet zerbitzuen bidez egindako eragiketen kasuan, titularrak jarraitu egin beharko die bankuak unean-unean titularraren esku jartzen dituen segurtasun, identifikazio eta autentifikazio prozedurei.
<b>Komunikazioa</b>	Triodos Bankek bezeroari emango dio indarrean den araudian ezarritako informazioa, txartelarekin egindako ordainketa eragiketa bakoitzerako. Era berean, hilerro, bezeroaren esku jarriko du aurreko informazioa itxi zenetik egindako eragiketen eta ordaintzeke dagoen saldoaren laburpena. Informazio hori dohainik bidaliko da, eta atal honetan adierazitako bideetatik. Oro har, Triodosek titularrari bere bizilekuko eta posta elektronikoko helbideetara egingo dizkio komunikazioak, bai eta titularrak banketxearen webgunean (www.triodos.es) duen postontzi pertsonalera ere. Titularrak, Triodosekin komunikatzeko, bide hauek erabili ahalko ditu: i) helbide honetara idatziz: Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, Las Rozas de Madrid, 28232 Madrid; ii) telefono hauetara deituz: 916404684 edo 902360940; edota bere postontzi pertsonala erabiliz..
<b>Ordainketa aginduak jasotzea</b>	Txartelarekin egindako ordainketa agindu bat jasotzeko unea, hau izango da: agindu hori Triodos Bankek jasotzen duen unea. Berdin dio ea agindua titularrak zuzenean igorri duen, ala onuradunaren bidez zeharka igorri duen.
<b>Gehieneko gauzatze epea</b>	Triodos Bankek, aurreko atalari jarraituz ordainketa aginduaren unea gertatu ondoren, eta arauz ezarritako baldintzetan, ziurtatuko du ordainketa eragiketaren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen dela, beranduenik ere hurrengo egun baliodunaren bukaeran.
<b>Erantzukizuna</b>	Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeaz, harik eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank NV, S.E. banketxeari egotzekoa den kausarengatik gauzatu ez diren edo akatsarekin gauzatu diren ordainketa eragiketen kasuan, banketxe horrek arrazoirik gabeko atzerapenik gabe itzuliko du eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa. Titularra txartelak egoki erabili eta kontserbatzearen arduraduna da. Titularrak beharrezko arretaz jokatu behar du txartelaren segurtasuna bermatzeko (txartela galtzea, lapurtzea edo faltsutzea saihesteko), eta txartela erabiltzeko prozedurari jarraitu behar dio: bereziki, PINaren sekretua mantentzea, txartela sinatzea, txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea jakinaraztea, eta bere borondatearen kontra inork PINa jakin duela jakinaraztea, berandutze desegokirik gabe, jakiten duen bezain laster. Jakinarazpen hori bankuaren edozein bulegotan egingo da, edo txartelean horretarakoxe ageri den 902 171 272 telefonora deituta. Aurrekoaz gainera, titularrek edo onuradunek duten erantzukizuna, txartelaren galera edo lapurreta gertatuz gero hirugarrenek txartela iruzurrez erabili badute, mugatuta geratuko da ehun eta berrogeita hamar (150) eurora, salbu eta titularren edo onuradunen dolua, errua edo zabarkeria baldin badago tartean. Titularrak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Triodos Bank NV, S.E. banketxeari txartelarekin egindako baimendu gabeko eragiketa oro. Lehenbailehen eta, betiere, zordunketa datatik hamahiru hilabete igarota, gehienez. Triodos Bank NV, S.E. banketxeak eragiketa baimendugabeen zenbatekoa itzuliko du, salbu eta titularrak iruzurrez jokatu badu edo bere betebeharrak nahita edo zabarkeriaz bete ez baditu. Azken kasu horietan, titularra erantzule izango da inolako mugarik gabe. Triodos Bank NV, S.E. banketxeak txartela blokeatu ahalko du, ondorengo gai hauetakoren bat hartzen duten arrazoi objektiboki justifikatuak direla kausa: segurtasuna, baimendu gabeko erabileraren susmoa, edo titularra bere ordainketa betebeharrak bere gain hartzeko gai izango ez delako arriskua.

## GARRANTZITSUA

Eskatutako kreditu produktuari buruzko edozein zalantza edo arazo baldin baduzu, kontsultatu egin behar duzu, produktua kontratatzea eskatu baino lehen, Triodos Bank NV, S.E. banketxearen edozein bulegotan, edo dokumentu honetako «Komunikazioa» atalean adierazitako arreta zerbitzuetan.

**Behean sinatzen duenak adierazten du jaso dituela, garaiz, bai dokumentu hau, bai produktua ulertzeko eta ea kreditu produktua kontratatzea eskatuko duen erabakitze behar adina informazio.**

Jaso dut,

Data: ...../...../.....

Izen-abizenak: ..... NAN: .....

Sinadura

Agiri honetan jasotako informazioa informatzeko baizik ez da. Emandako kalkulu eta informazioak orientaziozkoak baizik ez dira. Beraz, daitekeena da informazio garrantzitsu guztia hor kontuan ez izatea, txartela irekitzeko eskaera zehatz baten kasuan; horretarako, beharrezkoa izango da azterlan zehatz bat egitea, onartu aurretik. Triodos Bank NV S.E. ez da erantzule izango, informazio-eskatzaileak egindako erabileratik edo kontsultatik eratorritako edonolako ondorioei dagokienez.